

Jose Antonio Retolaza Ibarguengoitiaren hilberria (1929-2014)

BARAIAZARRA, Luis
Ohorezko euskaltzaina

Ez da erraz lerro gutxitan aditzera ematen hain bizitza oparoa. Goiko izenabizenen atzean Euskal Herriaz eta euskaraz maiteminduriko, euskaltzaleok nekez ahaztuko dugun, gizon bat dago. Gogoan dugu haren izaera fina, harremanetarako atsegina, leiala, besteena errespetatzen eta bereari (gureari) tinko eusten zekiena. Gogoan dugu batez ere zein ongi konpontzen zen haur eta gaztetxo euskaldunekin. Haiekin elkarlanean eraiki nahi zuen etorkizuneko gizarte berria, euskalduna, gure letretan jantzia, eskolatua.

Euskaldun eta abertzale izatearen ederra txikien bihotzean txertatu nahiak, beren nortasuna ederresten ikas zezaten haiei hainbat gauza esan nahiak, egonezina sortu zion eta amets politikak eragin. Amets horien artean, hauxe zen bere buruari behin eta berriro egin ohi zion galdera: nola esan nik txikitxo hauei barruan dudan hau? Eta hona erantzuna: haurrentzat egingadako aldizkaritxo baten bitartez. Baina horretarako haurrekin haur egingo zen pertsonaia bat asmatu behar eta horra *Kili-kili!*

Itzuliko naiz *Kili-kili* eta honen osabagana, baina orain joan zitzaigun uneaz oroipen arin bat:

Udaberria bere seinaleak agertzen hasi zeneko, haren bisita ofizialaren ordua baino pixka bat lehenago, martxoaren 12an, itxi zituen begiak gure Jose Antoniok. Begi nekatuak, hainbat buruhauste berari emanikoak. Baina artean, ume euskaldunen irribarreak liluraturiko begiak; Euskal Herria batetik bestera ikusi eta arakaturikoak; bere Abandoko, Muxikako eta Arrazolako, Anbotoko... irudiak izango zituen bere bihotzeko gomutetan gozo-

gozo gorderik. Espiritu argi, fin, ameslari eta ekintzaile baten ispilu izaniko begiak itxi ziren betiko mundu honetarako, eta haiekin batera, apurka-apurka agortuz eta amatatuz joaniko arnasa eta bizia. Berak eta gutariko askok eta askok sinesten dugunez, *betiko argiak argi egin biezaio*.

Hemen gauza asko eta ederrak utzi dizkigu. Kili-kili pertsonaiagan hustu zuen berak zuenik hoberena: Euskal Herri euskaldunaren asmoa; euskaldun abertzale baten mezu garbi eta zorrotza. Hor geratzen dira aldizkaria bera, era askotako liburuxkak... Hor geratzen da batez ere, agerian ikusten ez dena: orduko haurrengan, gaur egun gizon eta emakume gazteak direnengan, oparo erein zuen herrigintzako eta euskalgintzako hazia. Multzo harri-garria da, asko da, utzi diguna, baina ziur asko gehiago izango da asmoen, ametsen, desiren bizkar-zorroan eginkizun geratu zaiona. Hori izango da, beharbada, ekintzaile handi eta idealista fin guztien zoria.

Biografiaren harian

Jose Antonioren bizitzaren berri alde askotan irakurri dut. Berberak idatziriko lan autobiografiko nahiko zehatz eta osoak, *KILI-KILI ETA BIOD* izenekoak, 2014ko amaiera aldera ikusi zuen argia. *Kili-kiliren* ale batzuetan haren hainbat argibide biografiko aurki daitezke, baina gehienbat euskararekin zerikusia dutenak; beste iturri garrantzitsu bat *Bidegileak* saileko liburuxka da, Asier Astigarragak idatzirikoa. Azkenik, Jose Antoniok berak *Kili-kiliren* 163-164. alean idatzi zituen bere bizitzako hainbat gauzatxo. Labayruk 1993ko abuztuaren 16an egin zion omenaldirako idatziriko hitzalditik hartuta daude. Gorago aipatu dugun lan autobiografiko ederraren antzera, Labayruren omenaldiko hitzaldi honek ere «Kili-kili eta biok» du izenburua. Ikus dezagun lehenik, *Bidegileak* liburuxka. Honela hasten da:

Jose Antonio Retolaza Ibarquengoitia, Kili-kiliren eta euskararen aldeko ekinbide askoren aita, 1929ko ekainaren 6an jaio zen, Bilbon. Manuel zuen aita; ama, Teresa. Hiru anaia ziren etxean: Juan, Luis eta Jose Antonio, gazteena.

Labayru Ikastegiak egin zion omenaldian egin zuen hitzalditxoan honela agertzen du bere burua:

Bilbon jaio nintzan. Nire ikastola: etxea. Nire andereñoa: ama.

Ni jaio nintzanean, 1929an, ez zan oraindino ikastolarik Euskal Herrian. Handik urte batzuetara Errotatxueta ikastola sortu zanean, amak eskutik oratu eta bertara eroan ninduan. Bidean, nahiz eta amak txokolatina erosi, negar egiten neban. Ikastolan ere negar eta negar... Azkenean amak, beste bide bat harturik, Santiago Apóstol ikastetxera eroan ninduan, nire anaia bien ondora. Han «Retolazita»k (halan deitzen eustien nire anaien lagunak) erderaz ikasi eban.

Jose Antonioren beste zaletasun handietako bat euskal dantzena izan da. Santiago Apóstol ikastetxean hasi zen ikasten eta lantzen. *Bidegileak* liburukak hau dakar:

*Han ikasle zela fraide batek lehenengo eta Víctor Olaetak gero, gazte-
txoeekin dantzari-talde bat prestatu zuten. Olaetak, bere akademia eratu
aurretxoan, bertoko dantzak eta gerra zibileko atzerrialdian Ipar Euskal
Herriatik ikasita zekartzan Zuberoako maskaradakoak irakatsi zizkion.
Irakasle handiarekin hasi zen, bada, lehenengo. Gero, dantzari-taldeko
beste lagun batzuekin elkartu eta San Anton elizara joan zen beste talde
bat eratzeko.*

Kili-kili eta biok

Pertsona eta berak sorturiko pertsonaia bat eginik geratu ziren betiko; horregatik, *Kili-kili eta biok* du izenburua autorea hil ondoren argitaratu den lan autobiografiko bikainak. Izan ere, Jose Antonio Retolaza ez litza-teke berbera bere bihotzeko mutiko jator hori gabe. Irudiz eta moldez guztiz ezaguna. Betiko Kili-kili dela esan genezake: janzkera ezaguna du, euskaldun haur eta gaztetxo laguna da; hangoei hango erara eta hemengoei hemengo erara hitz egiten ongi jakin arren, hemen bere-berean egiten duena, herriko doinu eta guzti, baina ez hitzak moztuz eta ahopean esanez, osorik eta garbi ahoskatuz baizik. Lerro laburretan idatziko du, bertsoak idazten balebil legez. Egia esan, Kili-kilik beti idatzi izan du era horretara. Beraren laguntxoak errazago uler diezaioten izango da? Bi atal ditu liburukak: 1.an, *Kili-kili* agertzen da; 2.ean *Kili-kiliren* osaba: Jose Antonio Retolaza.

Gure pertsonaia

Jose Antoniok, Madrilen psikopedagogia ikasten ziharduenean, une askotan, era berean han eta hemen sumatzen zuen bere burua; gorputzez han zen, baina haren bihotza Arrazolaz eta Euskal Herriaz ametsetan. Amets horien artean *Kili-kili* zebilen, haren gorputzea, erditzea euskaldun haur eta gaztetxoak eskolatzeko.

Kili-kili alai-alai agertzen da, ameslari, haur euskaldunen maisu izateko. Baina ez betiko maisu erdaltzale eta bekozkodunen antzeko, haurren adiskide eta jolas lagun izateko baizik. Bere burua era honetara agertzen du:

Kili-kili naz, Bilbon, San Anton-go zubi ondoan, jaio nintzan 1966. urtean –Franco-ren garaian– eta bertako eleizan «Kili-kili» izenaz bateatu ninduan nire Osaba abadeak.

Kili-kili egiteko ekarri ninduen mundura, ume eta gaztetxo euskaldunei buru-bihotzetan kili-kili egiteko, hau da, euskaldunak dirala esanez EUSKAL KONTZIENZIA biztuteko.

Bere izeneko aldizkaria sortu zuen horretarako. Agintariek baina ito egin zuten, debekatuz. Aldizkaria ezin atera eta, LAN TA LAN koadernoak sortu zituen teila gabeko ikastolan. SARIKETA izena jarri zion, SARIKETA NAGUSIA. Ahoz zekitenetik idatzizkora bidea egiten irakastea zen jomuga, hau da, euskaran eskolatzea, alfabetatzea:

Alfabetatze bidean gainditu beharreko hiru mailak azaldu ondoren, hau dakar *Kili-kilik*:

Horrez gainera, Ikastola edo Sariketa horretan euskal kultura –Geografia, Historia, Folklorea...– zabaltzen neban. Horrez gainera, tokian tokiko euskera erreza erabilten neban, maisurik bage, zigorrik bage, azterketarik bage... Horrez gainera, joko eran eta sari bidez, euskerea POZGARRI bihurtu.

Ikastola hori edo Sariketa Nagusia Euskal Herri OSOan zabaldu zan.

Isilpekoaldi ilunetan, euskal usaineko guztia debekupean jarri nahi zenean, beldurra nagusi zenean, hesi horretan zirrikituak bilatu eta hainbat gauza egiten ahalegintzen zela diosku:

«Ezin da ezer egin» esaten zan garaian, ba, guk –isilik, zaratarik bage, ilunpean– egin egiten genduan zeozer.

Egoera politikoa aldatu zanean, ilunpetik argitara urten genduan.

Euskal Herriko lau bazterretako ume eta gaztetxo euskaldunok, mila-ka, kalera urten genduan –Bilbon, Donostian, Iruñean– KILI-KILI EGUNAN «Kili-kili bat, Kili-kili bi, milaka ume dantzatan, alfabetatzen, Teila bako ikastolan...» abestuz.

Politikariak inbidiatan zeuden, baina berak dio:

Politika baina, ez zan Kili-kilirena. Kili-kilirena, EUSKERA eta HERRIA zan. Herriak bizirik iraun egiala.

Herriak bizirik irauteko EUSKERA –arnasa– eta BURUJABETZA –Askatasun Osoa– behar ditu. Bata eta bestea eskubideak dira, berezko eskubideak. Politika beste arazo bat da, «Herria gobernatzeko era».

Egoera berri hartan euskara eskoletan sartu zela dio Kili-kilik. Bera ez dator bat han erabili ohi zen euskara eta metodoekin eta protesta egiten du. Baina goazen aurrera, euskaltzaleok batzen gaituena sendotzea komeni da-eta. 1986an Aramaion egin zen Kili-kili Egunean, Olinpiadetako zuzia pizturik duela agertzen da Kili-kili eta pankartak hau dio: *euskera etxean ikasi, eskolan landu, kalean erabili*. Eta goialdean hau dakar: *KALEAN, euskeraz kalean egiteko ohiturari eutsi behar jako. Horra hor, euskeraren salbamena*.

Kili-kili zorrotza da bidegabekeriaren aurrean ahotsa jasotzeko. Kritikak ez eze, salaketak egiten ere ez da beldur. Hizkuntzaren eta herriaren aurkako erasoak batez ere ez ditu onartzen, ez barkatzen. Orduan kritika zorrotzak izaten ditu luma-puntan. Hizkuntza kontuan iritzia emateko gai da; esaterako, euskara batuaren kontuan Kili-kilik berea esaten du, ez da isiltzen:

Sekulako eztabaida sortu zan. Eztabaida horretan asko ekienak gitxi ziran; gitxi ekienak, asko; ezer ez ekienak, hainbat. Guztiak hartu eben parte.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei eginiko kritikarik be ez da falta orrialde hauetan:

Geroago –egoera politikoa aldatu zanean–, Admisnistrazio barrira jo neban –itxaropentsu– ondo hartu eta bere magalpean hartuko ninduala-

koan. Baina guzurrak urten eustan... Ondo hartu bai, baina ondo ulertu ez, bere magalpean hartzeko.

Kili-kiliren osaba

Berez aita izan behar zuenari osaba deritzo; izan ere, bera apaiza izanik, Erromako Elizaren tradizioan apaizak ez dira ezkontzen.

Liburuaren bigarren parte honetan, Jose Antonioren biografiak hartzen ditu orrialderik gehienak. Ohar batekin hasten da: *Nire biografia ez jako inori ardura, baina «Kili-kili» sortzera eroan ninduen gorabeherak baliteke bati baino gehiagori ardura izatea. Horreexek dakartsudaz.*

Bere burua aurkezten digu, lehen *Kili-kilik* egin duenez: *Kili-kiliren osabea naz. Jose Antonio RETOLAZA nire izena. Urte asko ditut. Bilbon jaioa. Euskalduna naz: etxean ikasia, herrian hobetua, neuk neure burua alfabetatua. (...) Erdera estimatzen badot, euskera maite dot. Nirea, euskera da.*

«EUSKERA eta HERRIA» da Kili-kili eta bion goiburua. «Jaungoikoa», nire-nirea.

Umetako urteak eta gerratearen lekuko

Gerra piztu zenean, 1936. urtean, Muxikara, amaren herrira eramán zuten. Gerrari iheska Bilbotik hara aldatu eta bertan bizi izan zituen gerrako unerik latzenetakoak; Gernikako bonbardaketa kontatzen digu, bizi-bizi. Gertaera triste eta dramatikoak. Gerrako une hauek, seminarioan sartu aurreko hainbat jarduera eta seminarioko hainbat kontaera dira gogotsuen irakurri ditudanak. Batzuk antologikoak direla esango nuke. Hona Gernikako bonbardaketaren eta gerraren pasarte batzuk:

Gerratik ihesi Muxikara eroan ninduela esan dot. Alperriko ihesa. Muxikan ikusi neban eta bizi nik gerrea.

Gerrea, nire inguruan, holan hasi zan: Astelehena zan. Arratsaldeko hirurak-laurak aldera Oiz aldetik zeru goian –broum, broum, broum–

aeroplanoak. Hiruko hiru talde lehenengo, gehiago, gero. Kanpai hotsa hurrengo, dunbotsa, gero... Gernikan bonbaketa zan. Gu –mutiko koskorak– olgetari itzi eta zerura begira jarri gintzazan. Geure buruen gainean hara eta hona, gora eta behera –elaiak bailitzazan– «caza» eritxoan aeroplanoak.

Handik urrun ez –autobidean– oinez Gernikatik etxera, buruan otzarea ekarrela, etorran andrea luze-luze itzi eben hareek, balaz josita, lurrean odola eriola... hilda.

Honetan, danbada handi bat, 300 metrora edo, Eleizalden. Gero beste bat... Gero, gehiago. Eleizan, Pelizianonean eta, jausitako bonbak ziran. Gero eta hurrago... Noiz gure gain jausiko ete ziran... –dardaran– izuak hartuta gengoan.

Iluntzean, autobidean hildako andraren gorputua –izara zurian batuta– kanposantura eroiela ikustean, ikara egin eustan bihotzak, ikara handia.

Gauetz gorri egoan zeru goia. Sutan Gernika. Ke multzo baltzak lurretik zerura.

Gizonezko batzuk –gure aita eta beste batzuk– harako bidean jarri ziran. Gu, gure ama eta hiru anaiok, ohera... lo egitera. Nik, ezin. Tristea, oso tristea.

«Gerrea zer da?» itaundu neutsan behin amari. Laster jakingo naban... zoritxarrez!

Ez dot hareen gomuta onik. Don Severiano, egun batzuk aurretik niri Gure Jauna lehenengoz emon eustana, gaixo bati eleizakoak eroaten joiala –bidean– hil egin eben. Hareetariko bat gero, buruan abade kapelea ekarrela agertu jakun abade-plantak eginaz... Batera eta bestera –ziztuan– balak ebiltzan. Batean, dum-dum... bestean, pak-um...

Bala batek Ibarretxebarriko Juanito –nire adineko eta laguna– etxeko leihora urten eban baten jo eta bertan garbitu eban.

Egunez: tzuuum hotsa obusak. Egunez eta gauetz: tarra-ta-ta-ta... metrailadoreak.

Gu, babeslekuan –enborrez eta mokilez estalitako leize zuloan– egun osoan, seguru gengoazalakoan. Seguru, barriz, inon ez. Buluku baserria, obusen eraginez, sutan agertu jakun goiz baten.

Gogorra, oso gogorra, izan zan Bizkargiko gudaketea. Nazionalak eguraldi onaz eskuratzen ebena, eguraldi txarraz galtzen eben; egun argiz eskuratzen ebena, gau ilunez galdu.

Bizkargiko gudaketak Muxikako Eleizaldea –etxe, eleizpe, zelai– eritegi bihurtu eban. Han, hor... «ene ama!» entzuten zan. Ama... urrun baina!

Bizkargiko gudaketak Muxikako kanposantua bete egin eban. Gainerako gorpuak –ate ondoan pilatuta – ez erosta, ez protesta... mutu. Kanposantuan esangura handiko isiltasuna entzuten zan.

Kanposantura bidean gorpu bi buruak triskatuta mando gainean eroiezala ikusi nebazan behin. Anaiak ziran, bikiak. Naparrak.

Hilak kanposantura iragoten ikustea tristea bada, biziak kanposantura hiltera eroaten –oinex joaten– ikustea tristeagoa da; tristea, gogorra, la-tza... Hori ere ikusi egin neban! Ikusi eta..., tiro hotsa entzun.

Joan ziran Euskal Herria erdibituta, txikituta, lotuta itzirik Espainia «Una, Grande y Libre» egitera etorri ziranak.

Joan ziran etorri ziran moduan: tiroka, bonbaka, indarka... Baina Unamunok esan ebana: «Venceréis pero no convenceréis».

Gerra ostea eta ikasketak

Gure Jose Antonio eta etxeokak Muxikan geldituko ziren harik eta Bilbo «liberatu» arte. Familiako besteak joan arren, ama eta biak han gelditu ziren.

Muxikatik gerrako frontea kendu zenean, eskolak zabaldu zirela diosku, eta bera hara joaten hasi zela. Han, horman agertzen zen lehenengo irudia Francorena, Espainiako bandera, «Cara al sol», «Viva España», «Por Dios, por la Patria y el Rey» kantak ikasi behar eta abar eta abar. Hau dio ondo-rengo lerroetan:

Bilbon, Muxikan, Gernikan... asko ikasi neban. Baina eskolan baino etxean, kalean, herrian gehiago.

Muxika euskaldun-euskalduna. Asko aberastu zuen han bere euskara. Bigarren ikastola bihurtu zen Muxika; lehenengoa bere etxea izan zuen

amaren bidez. Gerra amaitzean, Bilbora berriro. Honela kontatzen digu berak:

Gerrea amaitu eta gero Bilbora joateko eguna heldu jatan. Pozik... eta triste. Lagunak, txakurra... etxe, solo eta zelaiak; Bizkargi mendia eta inguruak bertan izten nebazan... Betiko?

Bilbokoa nintzan, baina Muxikar bihurtu nintzan. Negarrez... ni-noian.

Fa, fa, fa... trena -ikatzaz eragindako trena- aurrera joian. Tunelean, ihuntasuna eta kea... eztula eta arnasestua. Zornotzan Donostiatik etorran trenari itxaron beharra... Bilbora orduko, gaua. Gaua zan baina kalean... ikusi egiten zan.

Gerra osteko Bilbo agertzen digu ondorengo lerroetan. Irabazleen oilar-keria eta galtzaileen negar eta beldurra:

Biharamunean begiak zabaldu eta... Bilbon! Bilbon... gerra ostean. Ene Jaungoikoa!

Kalean «Franco, Franco, Franco» horma guztietan. Haren irudia bazter guztietan. Desfileak eta, txitean-pitean. Espainiako bandera, non ez? Haren aurretik igarotean... besoa gora. «Cara al sol», edonon: zine amaieran, eskola hasiera eta amaieretan. «Marcha Nacional»...

Etxe asko... hutsik, etxeokak ihes eginda egozalako. Etxe-ganbara batzuk, ostera, beterik, ezkutaleku bihurtu ziralako. Kartzelak beterik. Ene Herria!

Euskera, inon ere ez. Kalean, eskolan, eleizan... erderaz. Bilbon debekatuta egoan baita «agur» esatea be. Agur esan eban bati atari baten sartu eta emon-emonak egin eutsoezan.

Hori zan Bilbo gerra ostean, ni hara joan nintzanean.

Aita, ama eta hirurok pasean joan ginan baten tiro-hots sail luzea entzun genduan Begoña aldean, Larrinagan. Nire gurasoak alkarri adi-adi beginaturik, berbarik bage, zeozer esan eutsoen alkarri. Zer? Niri tiro-hots harek Muxikako fusilamendu hotsa ekarri eustan gogora. Larrinaga, aldi haretan, Bilboko kartzelea zan. Hori zan Bilbo, gerra ostean, ni hara joan nintzanean.

Santiago Apostol ikastetxera bidali zuten eskolan hemen eta han eginiko ikasketak jarraitzera. Han ere, jakina, goian aipatu den giroa zegoen. *Aita hil eta gero «Bachiller»etik «Peritaje Mercantil»era aldatu ninduen, dio. Ikasketetan aurrera egin ahala, bi idealismo handi sortzen zaizkio: JAINKOA eta HERRIA. Horra hor nire idealismo biak, sasoi haretan sortuak eta gaurdaino mantenduak. (...) Euskaltasunak eraginda ikasi, egin eta irakatsi nebazan euskal dantzak.*

Seminariora begira

Don Klaudio Gallastegirekin topo egingo du: *Horra hor Don Klaudio handia –danean handia– nire lagun HANDIA. San Antongo Ekintza Katolikoan, katekesian, jarduten zuenekoak kontatzen ditu. Igande arratsaldetan La Peñako ume behartsuekin, haiek pozteko, eratzen zituen futbol partidak. Nazareteko Jesusegaz topo egin neban dio gerotxoago.*

Banaz, jauna, abade izateko gauza? –itaundu neutsan D. Klaudiori– Eta harek besarkada handi bat emon eustan erantzunex. Seminarioan sartzen da. Barruko borrokak, isileko negarrak, bakardadea. Honela kontatzen du berak:

Handik hilabetera Gasteizko Seminarioan nengoan sotana baten barruan. Baina hara joan orduko, negar egin neban behin baino gehiagotan neure bakardadean.

Amari agur samur bat eginik, lokarri bage, libre joan nintzan. Baina negar egin neban.

Gabonetan lehenengo oporrak iritsi zitzaizkion. Etxera joateko trajez jantzirik jantokira, gosaltzera joan zenean, hau esan zion Prefektuak: *«Cuando regreses te quiero ver con el traje teñido y el pelo cortado como es debido».*

Opor haietan, behin San Antonen, Bittor sakristaua etorri omen zitzaion esanez:

«Hay un cura forastero. ¿Quieres ayudarle a Misa?»

Ai, ene! –dio Jose Antoniok– Ez nekian oraindino Mezea erasoten...

«¡Qué vergüenza! ¡Vaya seminarista!» esanez alde egin zuen.

Ez neban abadegai itxurarik... «Hori ez da abade egingo» egin eben postura Gran Víako nire lagun neska batzuk.

Gabonak egindakoan traje baltzaz eta ulea moztuta, Mezea erasoten ikasita –abadegai bihurtuta– nentorran barrero Seminariora. Hara heltzean, arkitekto eta abade izandako D. Pedro Asuagaz gogoratu nintzan. Seminarioko eleizea egin ebanean, abadegaia zala, sakristia egiteaz ahaztu zan... «iVaya seminarista!». Baina abade egin zan.

Eta nik diot: ez bakarrik abade egin; orain dela gutxi, Elizak beatifikatu ere egin du.

Seminarioko bizitza kontatzen du, giroa, ikasketak. Euskararen kezka jarraitu zuen; han inon baino kezkatuago, beharbada, latina eta grekoa bai, baina euskararik deskuiduan ere ez zelako entzuten, euskaldunik ba ote zen zalantza sortzeraino. Hona berak dioskuna:

Euskeraz ba ete ekian, gero, han inork? Jakin bai, baekien. Hara: etxe-koak bisita egitera etorten ziranean euskeraz egiten eben ia gehienak.

Eta berari jazorikoa kontatzen digu eta halako bisita batean izan zuen lotsaria euskara trakestua zuelako:

Behin Floren Barandikako etorri zan Muxikatik bere seme Iñaki ikustera; bide batez neu. Ha lotsaria! Hareek fara-fara... berbetan; ni, ostera, tikili-takala euskeraz egin ezinik. Ha, egundoko lotsaria! Euskalduna bai banintzan, baina buruko zein baztarretan neukan euskerea?

Euskaldun oso bihurtu nahi eta ikasteari ekin zion bere kabuz eta erdi isilpean:

Euskal liburu bila hasi eta ozta-ozta hiru eskuratu nebazan: Zamarriparen Gramatika, Lopez Mendizabalen hiztegi txikia eta Altunaren Ipui-nak. Gero, ikas aretoan, gure zaindariak, gure prefektuak, harantz egiten ebanean, nik latin liburupeketik Zamarriparena ataraten neban, kukuka, pornografi liburua bailitzan...

Bestalde, euskal dantzak ez zituen alde batera utzi seminarioan. Seminarioan eta beste toki batzuetan euskal dantzak irakasten jardun zuen. Hainbat pasadizo eta kontu agertzen ditu euskal dantzekin zerikusia dutenak.

Apaiz

Handik laster abade egin nintzan. Nire amesa bete egin zan, behin betiko bete ere. Betiko abade. Nazareteko Jesusen oinordeko betiko. Arrazolara bidali zuten

ustekabeen; munduko bazterra begitandu zitzaion handik zehar eginiko ibilaldi batean.

Munduko bazterrera joan aurretik mundu zabalera joan nintzan –dio berak. D. Klaudiorekin eginiko ibilaldi alaiak, pasadizoz betekoak kontatzen ditu. Arrazolan eta Euskal Herrian gaztetasunaren indarrez jo eta ke ekin zion bere zereginari: guztien lagun egin zen, zaharren, gazteen eta batez ere gaztetxo eta haurren lagun. Arrazola bihotzean sartu zitzaion. Anbotopean euskara zen nagusi, euskaraz egiten zuten guztiek, euskaraz abereak, txoriak, haizeak, Arrazolari euskara zerion. Muxika etxeko euskara sendotzeko bigarren ikastola izan bazen, Arrazola unibertsitatea izan zela esango digu.

Arrazolan izan zan, Euskal Herrian –Munduan– Euskeraz Mezea lehenengoz. Ekialdeko errituan izan zen hau; Erromako errituan ezin zitekeen oraindik. (...) *Kristau Dotrinaz batera euskeraz alfabetatzen eta euskal kontzientzia sortzen ahalegindu nintzan.*

Egoera irregularrean

Eliz Hierarkia Erregimen ankerra babesteko eta euskaltasuna zapaltzeko prest ikusi zuen. Eta dena utzirik, bere etxera joan zen lehenengo eta gero Madrilera, psikopedagogia ikastera.

San Antongo euskal mezaren hasiera: *Meza –Erromako errituan– herriko hizkuntzan lehenengoz. Kili-kiliren jaiotza kontatzen digu ondoren: Aldizkaria sortu neban. Aldizkaria eta Pertsonaia.* San Anton eta «Euskerazaleak» erakundea *Kili-kiliren* babesak izan ziren. Bizkaiko abadeen itxialdia, «Gogor» mugimendua, isilpeko diskoa etab. agertzen dira. Hauek guztiak eta askoz ere gehiago haren biografiari itsatsiak geratuko ziren betiko.

Kili-kili eta biok S. Antonetik kaleratu ginduzan dio geroxeago. *Kili-Irratiaren* jarduna, *Kili-kili eguna*. Ilunpetatik argitara irten zenekoa. Agintearen aldetiko babesik eza salatzen du: *Kili-kili bakar-bakarrik. Kili-kili egoera larrian.* Dena dela, ia bertan behera utzia eta batzuen aldetik gogor jarria zen unean, Euskaltzaindiak ohore egiten dio eta haren osaba OHOREZKO

EUSKALTZAIN izendatzen du. 2000. urtean izan zen hori eta Jean Haritschelhar orduko euskaltzainburuaren eskutik jaso zituen ikurra eta agiria.

Kili-kili erakundeak Bizkaiko Ikastolen Elkartearekin hitzarmena egiten du eta aldizkaria argitaratzea BIEren esku geratzen da. Bizi laburra izan zuen. Aldi horretan Andres Osa «Sakona» izan zuen zuzendari. Hamahiru ale argitaratu ziren guztira: 234. aleaz hasi eta 247.az amaitu. 2001eko maiatzean ekin zion bide berriari eta 2002ko abenduan amaitu. Etsaiek gogor egin zuten jabe berriei beldurra sartu nahian. *Heldu jaken bildurra Eusko Erakundekoei. Bildurrak agortu ebazan diru-laguntzak* dio berak. Azken alean tristurazko ohar hau dator: «Dagoeneko bi urte igaro dira *Kili-kiliren* ardura hartu genuenetik, eta esku artean duzuen ale honekin, bihozminez eta tristuraz, amaitutzat ematen dugu aldizkari honen kudeaketan izan dugun erantzukizuna». Aldizkaria mututu zen.

KILI-KILI ETA BOK liburuan albiste ugari dator, Jose Antonioren biografiari dagozkionak eta honezkero Euskal Herriaren historiaren zati bihurtu direnak. Estilo bere-berean idatziak, baina era askotako testuak daude: gozoak, gaziak, ederrak. Bigarren atalaren amaieran hau dakar: *Idazki honetan ez dodaz egia guztiak esan, baina esan dodazan guztiak egiak dira. Agur.*

Joan zitzaigun Jose Antonio, *Kili-kili* isildu eta urte gutxira, baina hemen geratu da haren lan oparoa; hemen geratu dira emaztea: Mila Arrieta eta seme-alabak: Uxuri, Igotz, Asier, Ismene eta Beñat; adiskide eta laguntzaille finak: Pili Zuazo, Iñaki Egurrola; Lander Gallastegi *Kili-kiliko* marrazkilaria fina eta Jose Antonioren adiskide mina ez dugu geure artean; Jose Antonio hil eta laster joan zitzaigun, baina hemen dugu haren emaztea: Paule Sodupe; hemen geratu da Jose Antonio bera gure oroimenean betiko.

